

XIII

Kristo ta Ama

Gurutze gaiñetik
Ama damaigu:
dongak izan arren,
Ark maite gaitu.

XIV

Kristo obian

Illobian daukat
Jainko maitea;
zintzo bete daidan
bere legea.

XV

Kristo berbiztua

Kristo piztu zaigu
illen artetik;
gu atera naiez
gaiztakeritik.

NERE BASERR!A

*Bizi garan tokia —lur, etxe— goretsiaz ez genuke iñoiz
ere aspertu bear; are gutxiago, geure sorlekua baldin bada.
Nk ezin dut beintzat nere kabitxoa, mendiska barrenean ja-
rria, lore ta zugaitz orlegiz inguratua, bertso berotan goretsi
gabe luzaro iraun. Urteko aro guztietan bai ditu bere barne-
lillura eztiak.*

Doiñu: «Gernika-kc arbola...».

Millaka bertsoak gaur, ene baserria!
Kezkaz beterik doa nere animia,
kezkaz izan ezikan ez naiz kantaria,
zure maitez naukazu pizturik guztia!

Zure izena opa dut, «Loreder», edatu,
ezpan-ertzez eraman gozo baizen kartsu,
urrun abesten duton olatuk gaintitu,
aizeak ego-gaiñez ditzan dantzaratu.

Zoazte, bertso leunok! , zoazte aizetan,
nere poza iragarritz zorion atsetan.
Amaren soak zidan zure itza eman,
ark jarri zidan baita garra ene baitan.

Bertsoak, oi bertsoak! , zabiltzate urruti,
Bidez bide zoazte aur-talde dardarti.
Nerekin nere kezkak, zaitezte ausarti,
ez baitut nerau gabe leia ez olerki.

Neraugatik egin dut zin zain-odola,
ene ametsen bizi zerori zerala;
amets eta zain-odol, giltz-arri bezala,
bizi naizeño zu, bai, nere izar garbala.

Gaztetan zu zintzaidan abe ta zoria,
nere barnean osa zenduan kabia;
ertuko ba litzakit zurekiko izpia,
biotza litzaidake lertuko guztia.

Zorionaren billa, oi doakabeak! ,
asko doaz kalera, usturik etxeak.
Maizterrak uzten ditu itai ta goldeak,
oillo, baratz ta kirru etxeoandreak.

Ez ditu iñork geroztik zugaitzak moztuko,
ez osto ez adar mee iñork iñausiko.
Ukulluak aremuz dirade jantziko,
ta erlauntzen atakak txiñurriz josiko.

Goiz oillarrak jotzean be antsi goxorik
ez digu axuriak egingo iratzarrik;
ez orru, ez irrintzi, etxea bakarrik.
Utsik dan baserriak bai dula zori txarrik!

Ene baserri polit: gau zuriz, esaidazu,
zer duzun lo artean goxoki amestu:
oianak duen arren bere kautan deitu,
zuk otsez kuin-kuin duzu zeure ixilla zaitu.

Eder, barnekoi zait zure jarduera,
ixil eta zarataz nasturiko era:
txori, abere ta aurren oskar egunera.
gauetz doart illargi musu-ots leun-bera.

Izi ta mimentz tarte aizeak intziri,
maite kanta sorgindu gogo dizu zuri;
zure egonaren meeak bekarkigu guri
lanaren alaitasun, sari ta adiguri.

Ba ote zure altzo langorik iñontxo
urte-korapil luzez bizia izateko?
Aize garbia duzu, nai beste jateko,
ogi-tremes mamitsu, nai aia asetzeko.

Nun dituzu geiago neskatil guriak,
morrosko sendo ta ume arpegi gorriak?
Baserrian dauzkazu andra errimiak,
gizaseme bulartsu, langille ta argiak.

Naiz-ta idi dema onai ta antzeko dostari
berebiziko griña leiatuaz ari,
baserritar zintzoa kale bizitzari
oratua baiño ez duzu jokalaria.

Kale kutsutik duzu baserria azke,
OSO duzu fedezko, arras Jainkozale,
auzo ar-emanetan elkar laguntzaille,
goiz eta arrats zaizu otoitzak esale.

Baserritar bizitzak baditu nekeak,
—ez dut ixillazi baita naigabeak.
Nungo bizimoduk ez? Uste du jendeak
zoriona berezko duela kaleak.

Bai zera! Urian errez da fedea ukatzen.
Giza-molde sotilla ta oiturak uzten,
eman itzari aise irripar egiten,
biotz guztiaz elkar ez dute maitatzen.

Euskaldun erriaren izate bipilla,
gure asaben bizi, edesti sotilla,
baserrian oraindik daukazu ixilla,
oien arnas egotsa bizirot dabilla.

Zoazte, ba, neurtitzok! , zoazte aizetan,
nere poza iragarritz zorion atsetan!
Barnea izpi-jario amak esan zidan,
aren gogo neurrira gu beti gabiltzan.

